

OTM-R politika

(Open, Transparent and Merit-Based Recruitment)

Dokumentu honek oinarritzat du Barne Erregimenaren Erregelamenduko 31. artikuluan ezarritako helburuen betearazpena. Honela du izena: Langile propioen hautaketa-prozesua.

Artikuluan, hau jasotzen da:

Langile propioak prozedura objektiboen bidez hautatuko dira. Prozedura horiek bermatu egingo dituzte berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, baita ondoren ezartzen direnak ere:

- a) Deialdiak eta beren oinarriak argitaratzea.
- b) Gardentasuna.
- c) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna.
- d) Independentzia eta diskrezionaltasun teknikoa hautaketa-organoen jardunean.
- e) Egokitasuna hautaketa-prozesuetako edukiaren eta garatu beharreko funtzioen edo zereginen artean.
- f) Hautaketa-prozesuen arintasuna, objektibotasunari kalte egin gabe.

Printzipio horiek lotetsiak daude "European Charter for Researchers"-en jasotzen diren gomendioekin, baita "Ikertzaileak Kontratatzeke Jokabide Kodean" jasotakoekin ere, kontuan hartuta horiek direla lanerako ahalik eta pertsona hoberena erreklutatzen laguntzen duten tresnak, baina aldi berean:

- Bermatu egiten da aukera-berdintasuna.
- Sarbidea denentzat.
- Nazioarteko zorro lehiakor bat sortzen da, giza kapitalaren lankidetzaren mugikortasunerako.
- Hobetu eta balioan jartzen da ikertzailearen karrera.

IIS Biodonostiak konpromisoa hartua du gomendio horiekin eta horri jarraikiz lortu zuen HRS4R bikaintasun-zigilua. Europako Batzordeak berrikusi egiten du, Euraxess bidez, kontratazio-prozesua OTM-R esparrua betez garatzen dela.

Julio Arrizabalaga Aguirreazaldegui
IIS Biodonostiako Zuzendari Zientifikoa

Donostia, 2019ko urtarrilaren 1a